

Diru-iturriak

Enpresa edo negozio ideia guztietan diru-iturriak aztertzea garrantzia handia dauka, enpresak ondo joateko eta krisi batera eraman gaitzakeen gehigizeko erorketa ekonomikorik ez izateko. Horretarako negozio-proposamena ondo diseinatzea eta modu egokian abian jartzea oso garrantzitsua da.

Lehenik eta behin, barne finantzaketaren kasuan, gu geuk jarritako baliabide propioak dira eta ez dira inoiz itzuli behar, hau da, ez dute kostu gehiagarririk. Bertan bi baliabide ezberdin aurkitzen dira, kapitala, honetan guk eginiko ekarpenak sartzen dira eta gure negozio ideiarekin kasuan bazkide bakoitzak 200€ jarriko ditugu; eta bigarrenaz erreserbak aurkitzen dira, hauek enpresaren aurreko urteetako irabaziak dira, bazkideen artean banatu ez direnak noski, eta gure kasuan aurreikusita dago urtero 1000€ erreserba bezala edukitzea da.

Beste alde batetik, kanpo finantzaketa aurkitzen da, eta honetan enpresatik kanpo bilatu dezakegun laguntzak dira eta hainbat motakoak izan daitezke, epe laburrekoak edo epe luzerakoak. Lehen aipatu bezala, ekonomia arazoak izan ezkerro Santander Bankuarekin konponduko ditugu.

